

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 201/2020 Foru Agindua, irailaren 9koa, Donemiliagako (Zuhatzu Donemiliaga) arau subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa egiten duena**

Erreferentziako aldaketa puntualaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2020ko martxoaren 18an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak udalaren indarreko hirigintza plangintzaren 2. aldaketa puntualari buruzko ingurumen agiri estrategikoa jaso zuen Donemiliagako Udalarengandik, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, baita hirigintza agiria ere.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, hasiera eman zion kontsultak egiteko 45 egun balioduneko aldiari, eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunentzat, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.


Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko irailaren 3an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (20/56 espedientea).

#### **1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak**

##### 1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Proposatutako aldaketa puntualaren helburua da zuzentzea gaur egungo arau subsidiarioen arabera (aurrerantzean, AS) 1 poligonoko 284, 286 eta 287 katastroko hiri lurzatiarako ezarritako lerrokadurak, zeinak Zuhatzu Donemiliagako Arco kaleko 7 zenbakian baitaude, lurzati horiek antolatzen dituen bidearen gaur egungo eta etorkizuneko trazadura hobetzeko. Sustatzaileak adierazitakoaren arabera, hori eginez gero errepideen eta eraikinen arteko segurtasun distantzia beteko litzateke.

Aipatutako lurzatiak antolamendu xehatuak arautzen ditu ASetako antolamendu zuzeneko zonaren fitxen arabera (R 6.2 zona), eta ez dago fitxa horiek aldatu beharrik aldaketa puntuala egitearen ondorioz, lerrokadurei dagokiena izan ezik. Horiek horrela, ez da aldatuko ez bizitegitarako gehieneko azalera eraikigarria ez bizitegitarako gisa sailkatutako azalera xehakaturik. Sustatzaileak aurkeztutako agirietan azaldutakoaren arabera, hona hemen aldaketa puntualaren adierazpen grafikoa:



ASen aldaketa puntuala	ASak, gaur egun
------------------------	-----------------

### 1.2 Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Lehen esan bezala, aldaketa puntualak eragina izango du Zuhatzu Donemiliagako Arco kaleko 1 poligonoko 284, 286 eta 287 lurzatieen lerrokaduretan, Arabako Lurralde Historikoko Donemiliagako udalerrian.



Aldaketa puntualaren eremua Zuhatzu Donemiliagan, ortofoto gainean.	Aldaketa puntualaren eremua Zuhatzu Donemiliagan, ortofoto gainean, catastro lurzatiak nabarmenduta.
---	--

### 1.3. Aztertutako aukerak

Sustatzaileak aurkeztutako agirietatik ondorioztatzen denez, bi alternatiba hartu dira kontuan:

“0” aukera edo ez jardutekoa: Aukera horrek ekarriko luke ASak gaur egun dauden bezala uztea eta, beraz, ez lirateke zuzenduko ez lerrokadurak ez A-3022 foru errepidetik Arco kalean zehar Zuhatzu Donemiliagako herrira sartzeko bidearen trazadura eta, beraz, gaur egungo segurtasun distantziak dauden daudenean geratuko lirateke, zeinak ez baitira nahikoa Donemiliagako udalerriko 1 poligonoko 284, 286 eta 287 katastoko hiri lurzatieen artean dagoen bidean.

“1” aukera (hautatutakoa): Aukera honek ekarriko luke zuzentzea gaur egungo arau subsidiarioen arabera (aurrerantzean, AS) 1 poligonoko 284, 286 eta 287 katastoko hiri lurzatieta-rako ezarritako lerrokadurak, zeinak Zuhatzu Donemiliagako Arco kaleko 7 zenbakian baitaude, lurzati horiek antolatzen dituen bidearen gaur egungo eta etorkizuneko trazadura hobetzeko. Sustatzaileak adierazitakoaren arabera, hori eginez gero errepideen eta eraikinen arteko segurtasun distantzia beteko litzateke. Aukera horrek ez luke aldatuko ez bizitegitarako gehieneko azalera eraikigarria ez bizitegitarako gisa sailkatutako azalera xehakatu.

## 2. Kontsulta fasearen laburpena

2020ko maiatzaren 21ean Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Taula honetan, kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteak agertzen dira, bai eta haietatik zeinek erantzun duen ere:

URA – Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Energiaren Euskal Erakundea	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	X
Donemiliagako Udala	
Zuhatsu Donemiliagako Administrazio Batzarra	
Arabako Lautadako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 20/56 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du aldaketa horren eraginpeko lurzatietan ez dagoela inolako aztarna arkeologikorik dokumentatuta.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi zuen aldaketa puntualaren eremuan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

- URA - Uraren Euskal Agentziak 2020ko maiatzean lehen txostena egin zuen, eta bertan zehaztu zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri ziola, egokitzat joz gero gaiari buruzko txostena egin zezan, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarritakoarekin bat etorritz.

2020ko uztailaren 3an, bigarren txosten bat eman zuen, eta han adierazi zuen, aldaketaren ezaugarriak eta haren xede den eremua kontuan hartuta, ingurumen ebaluazio estrategikoa izapidetzearen ondorioetarako, agentziak ez zuela aurkitu uraren arloan eraginik duen alderdirik, eta, beraz, ez duela oharrik egiten.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, "Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenetan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez daude jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan". Era berean, hauxe dio: "kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez".

- Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak txostena bidali du, eta han nabarmendu du, Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren eskumenen esparruan, ez dagoela inon jasota meatzaritza jarduera aktiborik dagoenik, indarrean dagoen Meategien uztailaren 21eko 22/1973 Legeak eta hura garatzeko gainerako araudiak araututakorik.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, aipatutako aldaketa puntualaren edukia laburbildu ondoren, ondorioztatu du Arco kaleko lerrokadurari buruz planteatutako aldaketak ez duela eraginik landa lurzoruan eta ez duela inolako ondoriorik nekazaritza eta abeltzaintza jardueran. Era berean, hiri lurzorua denez, Nekazaritza eta Basozaintzako ALParen antolamendu eremutik kanpo geratzen da.

- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak aldaketari buruzko txostena egin du, eta ondorioztatu du ez dagoela ondare historiko-arkitektonikoko elementurik eta, beraz, zerbitzu horren iritziz, ez duela eraginik izango Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspegitik.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen inpaktu nagusiak.

Aipatutako aldaketa puntualaren xedea da Donemiliagako udalerriko Zuhatzu Donemiliaga herrian dauden hiri lurzatien lerrokadurak aldatzea. Aldaketa puntuala onetsi eta gauzatu gero, eraginpeko hiri lurzatietan kanpoko itxiturako harrizko hormek bakarrik jasango dute eragina, eta ez da ia eraginik izango gaur egun hiri lurzatietan dagoen landaredian. Nolanahi ere, Donemiliagako 1 poligonoko 284, 286 eta 287 lurzatietan gaur egun dauden landareak landaredi erruderal nitrofiloa, baratzeak eta fruta arbola bakanen bat dira, eta ez lukete ia eraginik jasango, aldaketa puntualak lerrokaduran aldaketa txikia egitea dakarrelako.

Ingurumen agiri estrategikoa kontsultatu eta ondoren erreferentziako ingurumen kartografiarekin alderatu ondoren, ez da hauteman ingurumen eragin nabarmenik izango duenik ingurumen interes handiko eremu edo elementuetan, hala nola katalogatutako intereseko habitatetan, katalogatutako paisaietan edo korridore ekologikoetan. Era berean, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasean, ez da jaso eraginpeko eremuan eragin nabarmenak jasotzen dituen alegaziorik.

Hori guztia dela eta, ez da espero aldaketa puntual hau onesteak ingurumen eragin nabarmenik izango duenik, eta positibotzat jotzen da aldaketan aurreikusitako lerrokaduren aldaketak bide segurtasunari begira ekarriko duen hobekuntza.

Dena den, eta amaitzeko, aldaketa puntual hau onestearen ondorioz egin litezkeen eraisketa eta eraikuntza obrek litekeena da inpaktu batzuk ekartzea eta, ondorioz, ingurumen integrazioko neurri egokiak hartu beharko lirarteke, ingurumen ondorioak minimizatzen.

#### 4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Sustatzaileak ingurumen agiri estrategikoan jaso dituen ingurumen integrazioko neurriez gain, zehazki 12. apartatuan (16. eta 17. orrialdeak), egokitzen jotzen da honako baldintza hau ere ezartzea, Donemiliagako arau subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren hirigintza agirian sartzeko:

– Aldaketa puntuala garatzeko jarduketek eragin litzaketan eraispen eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitartzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikinetako materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegi edo zabortegietara eramane beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Donemiliagako arau subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

*NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA*